



LKS INGENIERÍA, S.COOP.



1 FASEA • FASE 1

1

Memoria eta Eranskinak

Proyecto • Proiektua
DONOSTIAKO MARTUTENE AUZOAN URUMEA IBAIA
UHOLDEETATIK BABESTEKO PROIEKTU XEHATUA

Promotor • Sustatzailea
UR AGENTZIA

Fecha • Data
2013ko iraila

Autor • Egoilea
Enrique Elkoroberezibar Markiegi
Bide, ubide eta portuetako ingeniaria





LKS INGENIERÍA, S.COOP.



1 FASEA • FASE 1

1.1 Txostena

Proyecto • Proiektua
DONOSTIAKO MARTUTENE AUZOAN URUMEA IBAIA
UHOLDEETATIK BABESTEKO PROIEKTU XEHATUA

Promotor • Sustatzailea
UR AGENTZIA

Fecha • Data
2013ko iraila

Autor • Egilea
Enrique Elkoroberezibar Markiegi
Ingeniero de caminos, canales y puertos



aurkibidea

1.	AURREKARIAK ETA PROIEKTUAREN XEDEA	4
1.1.	Aurrekariak	4
1.2.	Proiektuaren xedea	4
2.	ABIAPUNTUKO DATUAK	5
3.	AURRETIAZKO LANAK	7
3.1.	Topografia	7
3.2.	Geologia eta geoteknia	7
3.3.	Obrengatik eragindako zerbitzuak	7
3.4.	Ingurumenaren azterketa	7
3.5.	Lurzoruen kudeaketari buruzko aurretiko azterlana	7
4.	AUKERATUTAKO KONPONBIDEAREN DESKRIPZIOA.....	8
4.1.	Urumea ibaia bideratu.....	8
4.2.	Martuteneko zubia	10
4.3.	Pilarreko pasabidea	11
4.4.	Añarbeko Urak edateko ura hornitzeko duen hoditeria (Ø1000 mm.) beste leku batean kokatu.....	14
4.5.	Obrengatik eragindako zerbitzuak	14
4.6.	Aldameneko urbanizazioa	14
4.7.	Lur-muinoa ibaian gora	16
4.8.	Behin-behineko pasabidea	16
4.9.	Ekaltz-tanga	16
4.10.	Ponpatzeko putzu berria	17
5.	DESJABETZEAK ETA KALTE-ORDAINAK	18
6.	KALITATEA KONTROLATZEKO PROGRAMA	18
7.	OBREN AURREKONTUA	19
7.1.	Gauzatze materialeko aurrekontua.....	19
7.2.	Lizitazioaren aurrekontu oinarria.....	19
8.	OBRAK EGITEA	19
8.1.	Obraren plana	19
8.2.	Obra osoaren adierazpena	21
8.3.	Kontratua esleitzeko prozedura eta forma.....	21
8.4.	Kontratataren sailkapena	21
8.5.	Prezioak berraztertzea.....	21
9.	SEGURTASUN- ETA OSASUN-AZTERLANA.....	22
10.	PROIEKTUAN JASOTAKO DOKUMENTUAK	23
11.	ONDORIOAK	25

1. AURREKARIAK ETA PROIEKTUAREN XEDEA

1.1. Aurrekariak

2005. urtean, IKAUR enpresak Urumea ibaiari buruzko azterlan hidraulikoa egin zuen, Martutene parean aztertu zuen, hain zuzen; hau da agiri horren izena: **"ADECUACIÓN DEL ESTUDIO HIDRÁULICO DEL RÍO URUMEA A SU PASO POR MARTUTENE"**. Bertan, Donostiako Udalarentzako 2004. urteko udal-plangintzaren jarduera-ildoak adierazi ziren, eta Donostiako Martutene auzoan Urumea ibaia uholdeetatik babesteko proiektua idazteko abiapuntu izan zen. Proiektu hori ANTAK idatzi zuen 2009. urtean.

Hau zuen xede proiektuak: Donostiako Martutene auzo parean, Urumea ibaia bideratzeko beharrezko lanak zehaztea eta baloratzea. Hona hemen egin beharreko lan nagusiak:

- ☐ 1.370 metro bideratu (hormak, harri-lubetak, landareak jarri...)
- ☐ Martuteneko egungo zubia bota eta beste bat eraiki
- ☐ Martuteneko egungo oinezkoen pasabidea (Pillarreko Kolonian) bota eta beste bat egin
- ☐ Añarbeko Urak enpresaren ur-hoditeria berriro kokatu, Urumearen ibilgua gainetik gurutzatzen baitu
- ☐ Obrak eragiten dien zerbitzuak berriro kokatu
- ☐ Urbanizazio osagarria

Sustatzailea:

URA, Uraren Euskal Agentzia.

Ekimena:

Publikoa

Udalerrria

Donostia (Gipuzkoa)

Enpresa kontsultorea:

LKS Ingeniería, S.Coop. (Gipuzkoa).

Telef.: 943 - 712488

Faxa: 943 - 793878

E-maila: arrasate-mondragon@lksingenieria.es

<http://www.lks.es>

Egileak:

Bide, ubide eta portuetako ingeniaria: Enrique Elkoroberezibar Markiegi

Herrilaretako ingeniari teknikoa: Xabier Gorrotxategi Zipitria

Delineatzaile projektugilea: Iñaki Baztan- Arantxa Idigoras

Data:

2012ko ekaina

1.2. Proiektuaren xedea

Proiektu xehatu honek hau du xede: Martutene auzoan Urumea ibaia uholdeetatik babesteko eta ibaia bideratzeko jatorrizko proiektua egokitzea, batik bat, obra 2 fasetan egiteko. 1. faseak Martutene zubitik (pare hori ere bai) ibaian gorako zatia hartuko luke bere baitan, eta 2. faseak Martutene zubitik ibaian beherako zatia, azken jarduera-gunera arte, GI-131 errepidean dagoen Lugañene zubiraino.

Halaber, proiektu xehatu hau baliagarria izan da bideratze-lanetan zenbait aldaketa egiteko, xehetasun handiagoz berrikusteko obrak eragiten dien zerbitzu batzuen kokapen berriak, beste berriren bat gehitzeko (euri-uren kolektorea - ekaitz-tanga eskuinaldeko ertzean eta ur beltzen ponpaketa beharrezko kolektoreekin) eta egonkortasun-neurriak ezartzeko, oso hurbil baitaude zenbait eraikuntza.

Horrez gain, azterlan geologikoak eta geoteknikoak eta ingurumen-eraginari buruzko azterlana berrikusi dira, eta lurzoruen atariko azterketa gehitu da.

2. ABIAPUNTUKO DATUAK

Proiektu hau idazteko dokumentu hauek hartu dira abiapuntu:

- *Donostiako Martutene auzoan Urumea ibaia uholdeetatik babesteko eta ibaia bideratzeko proiektua. (2009. urteko martxoan ANTA enpresak egina, URA Ur Agentziarentzat).*
- *Urumea ibaiaren bideratze-lan berriaren azterlan hidraulikoa, Ikaur enpresak egina 2013.urtean, URA Ur Agentziarentzat.*


Merezi du aipatzea LKS enpresak ontzat eman dituela Anta enpresaren proiektuan Martutene Pasealekuko zubirako eta Pilarreko pasabiderako egindako kalkuluak, eta ez dituela egiaztatu, hori ez baita URA agentziaren eta LKS enpresaren arteko kontratuaren xede.

Hala ere, ibaia bideratzeko hormetan egin dira aldaketak, jatorrizko proiektuan adierazitako altuerari dagokionez. Horrenbestez, hormak beste dimentsio batzuk dituzte. Horrez gain, azterlan geotekniko sakonagoa aplikatu da.

Grafiko hauetan egungo uholde-gunea eta bideratze-lanen ondorengo uholde-gunea azaltzen dira. Agerian dago inguruko hiriguneak uholdeetatik babestuta daudela.



Uholde-arriskua, Urumea ibaiaren bideratze-lan berriari buruz IKAUR enpresak 2013. urteko ekainean egindako azterlan hidraulikoaren arabera. **Eguno egoera** (T10: laranja; T100: horia; eta T500 urdina)



Uholde-arriskua, Urumea ibaiaren bideratze-lan berriari buruz IKAUR enpresak 2013. urteko ekainean egindako azterlan hidraulikoaren arabera. Proiektatutako obrak egin ondoren. (T10: laranja; T100: horia; eta T500 urdina)

3. AURRETIAZKO LANAK

Proiektu xehatua propio idazten hasi aurretik, lan hauek egin dira:

3.1. Topografia

Ez da beharrezkoa izan lan osagarri egitea, eskuragarri dagoen topografia eta jatorrizko proiektuan erabilitakoa egokia baita proiektu honetarako.

3.2. Geologia eta geoteknia

Jatorrizko proiektuaren azterlan geoteknikoa osatu eta azterlan sakonagoa egin da, batez ere, besta 4 zundaketa berri egin ondoren, honako helburu hauekin:

- 1., 2. eta 3. zundaketak: Martuteneko zubi berriaren zimenduak eta eraikitze-prozesua berrikustea.
- 4. Zundaketa: Manila izeneko etxearen ondoan.

Azterlan berrian, beste alderdi batzuen artean, zenbait eraikinen ondoan obrak egin bitartean zer euste-neurri hartu behar ziren aztertu da. Hain zuzen, eraikin hauen ondoan egin bitartean:

- Ezkerraldean:
 - o . 0+320 KP Industria-nabea
 - o . 0+470 KP Etxebizitzaren eraikina
 - o . 0+490 KPtik 0+510 KPra Zubi berriaren horma-bular ondoko eraikinak
- Eskuinaldean:
 - o . 0+520 KP Zubi berriaren horma-bular ondoko eraikina
 - o . 0+840 KP Etxebizitzaren eraikina
 - o . 0+900 KP Etxebizitzaren eraikina

3.3. Obrengatik eragindako zerbitzuak

Jatorrizko proiektuan adierazitako zerbitzuez gain, beste zerbitzuren bat ere identifikatu da.

3.4. Ingurumenaren azterketa

Geotech enpresak Ingurumenaren gaineko Eraginaren azterketa egin du. Dokumentu hori proiektu honi erantsi diogu.

3.5. Lurzoruen kudeaketari buruzko aurretiko azterlana

Ondoan enpresak lurzoruen kudeaketari buruzko aurretiko azterlana egin du. Dokumentu hori proiektu honi erantsi diogu.

4. AUKERATUTAKO KONPONBIDEAREN DESKRIPZIOA

4.1. Urumea ibaia bideratu

Proposatutako ibilguaren biderapenak gutxi gorabehera 1.370 m.-ko luzera dauka eta egungo errekaaren ibilguari eustea du xede, inolako eraginik sortu gabe, eta 0,00 kotatik aurrera bere zabalerara handituz. Guztira, 45 metro gutxienez eta 50 metro gehienez izango da ibaiaren behin betiko zabalerara.

Ibaia zabaldu ondoren, ibaiertz berrien euspina 4,00 kotararteko (itsasgoran duen kotatik goraxeago) 1H/1B penditza duten harri-lubeten bitartez lortzen da. Hiriguneetan, harri lubeta hauek 2H/1B pendiz egonkorra duten lur zatiez eta oinezkoentzako pasealeku batez burututa daude. Hiriguneetatik kanpo, berriz (aztertutako eremuaren hasieratik ibaian gora Pilar auzoaren parera arte kasu), harri-lubeta lehenik eta behin 4,00 kotaraino eta ondoren egungo lur zatiraino altxatuko da, eta ez da uholdeetatik babesteko lur zatirik ezarriko, ezohiko uharretan ibaiertz horren uholdea baimentzen delarik.

Eutsi behar diren eraikuntzen ondorioz aipatutako harri-lubetak ezartzeko tokirik ez dagoen lekuetan, harriz bukatuta dauden murrak aurreikusi dira.

Hona hemen proposatutako jarduera, xehatua eta eremuaren arabera:

2. FASEA (0+000 KPtik 0+420 KPra Ez.A. eta 0+425 KPra Es.A.) (102-112.5 ggb. bitarteko profilak)

- Ezkerraldea:
 - o 0+000 KPtik 0+100r KPra:
 - 1H:1V maldako harri-lubeta, +0,00 kotatik +4,00 kotara.
 - 2H:1V maldako lur-ezponda, +4,00 kotaren eta T500 urteko aldirako uholde-kotaren artean, 0,50 metro kenduta (+6,70 kota, gutxi gorabehera).
 - 1,00 metroko altuerako petrila, bide ertzean.
 - Eremu horretan, arrapala ere jarriko da, behetik gurutzatuko duena 27. Poligonorako zubia.
 - o 0+100 KPtik 0+240 KPra:
 - 1H:1V maldako harri-lubeta, +0,00 kotatik +4,00 kotara.
 - 2H:1V maldako lur-ezponda, +4,00 kotaren eta T500 urteko aldirako uholde-kotaren artean, 0,30 metro gehituta.
 - 3 metroko zabalerako amaierako berma, T500 urteko aldirako kotako lurretan gehi 0,30 metro.
 - 2H:1V maldako lur-ezponda, behearanzkoa, 3 metroko zabalerako pasealekura arte, orain dagoen urbanizazioarekin lotzeko.
 - o 0+240 KPtik 0+480 KPra:
 - Hormigoizko grabitate-horma, bistako ezponda-harriz apainduta (1H:10V maldakoa), +0,00 kotatik T500 urteko aldirako uholde-kotaraino ken 0,50 metro, 1,00 x 0,50 metroko petrila duela.
 - Atzealdean, 2H:1V maldako lur-ezponda, behearanzkoa, orain dagoen urbanizazioaren kotara arte.
 - Lur-ezponda egungo urbanizazioarekin lotzeko, 1,00 x 0,50 metroko harrizko petrila.
- Eskuinaldea:
 - o 0+000 KPtik 0+230 KPra:
 - 1H:1V maldako harri-lubeta, +0,00 kotatik +4,00 kotara.
 - 2H:1V maldako lur-ezpondak, +4,00 kotaren eta +5,00 kotaren artean.
 - 4 metroko zabalerako pasealekua ibaiertzean +5,00 kotara, ibaiaren aldean 0,50 metroko berma duela.
 - 2H:1V maldako lur-ezponda +7,50 kotara gutxienez, edo gerora egingo den bidearen kotara.
 - o 0+230 KPtik 0+340 KPra:

- Grabitate-horma, bistako ezponda-harriz apainduta (1H:10V maldakoa), +0.00 kotatik ibaiertzeko pasealekuaren T500 urteko aldirako uholde-kotaraino ken 0,50 metro, 1,00 x 0.50 metroko petrila duela.
- Hormatxo bertikala, gero egingo den bidearen kotaraino edo T500 urteko aldirako uholde-kota lortuko dela bermatzen den kotaraino ken 0,50 metro, 1,00 x 0.50 metroko petrila duela.
- Hasierako zatian tarte bat izango da, eta tarte horretatik aurrera grabitate-hormak altueran gora egingo du; eta tartearen eta ibaiertzeko pasealekuren arteko zatia 2H:1V maldako lur-ezpondakoa izango da.
- Amaierako zatian, ibaiertzeko pasealekuaren ondoren, 2H:1V maldako lur-ezponda egingo da +7,50 kotaraino; gero, metro 1eko zabalerako berma, bai eta behearantzko 2H: 1V maldako lur-ezponda, berritu beharreko bidearen kotaraino.
- o 0+340 KPtik 0+470 KPra:
 - 1H:1V maldako harri-lubeta, +0,00 kotatik +4,00 kotara.
 - 2H:1V maldako lur-ezponda, +4,00 kotaren eta +5,50 kotaren artean.
 - 4 metroko zabalerako pasealekua ibaiertzean +5,00 kotara, ibaiaren aldean 0,50 metroko berma duela.
 - 2H (gutxienez):1V maldako lur-ezponda +7,50. Gero, ezponda hori behearantz joango da, orain dagoen bidearen kotara. Hor eskailerak/harmailak jarriko dira, ibaira joan ahal izateko.
- o 0+470 KPtik 0+490 KPra:
 - Grabitate-horma, bistako ezponda-harriz apainduta (1H:10Vmaldakoa), +0,00 kotatik gehienez ere +5,85 kotaldakorrrera.
 - 2H:1V maldako lur-ezponda, kotaldakorrrera (+7,17 kotatik +8,27 kotara bitartekoa).

1. FASEA (0+420 KPtik Ez. A. eta 0+490 KPtik Es.A. 1+370 KPra (112.5-134 ggb. bitarteko profilak)

- Ezkerraldea:
 - o 0+420 KPtik 0+690 KPra:
 - Grabitate-horma, bistako ezponda-harriz apainduta (1H:10Vmaldakoa), +0,00 kotatik orain dagoen bide/lursailaren kotara.
 - o 0+690 KPtik 1+370 KPra:
 - 1H:1V maldako harri-lubeta, +0,00 kotatik +2,00 kotara.
 - Krainer-motako horma, 3H:2V maldakoa, +2,00 kotatik +4,00 kotara.
 - 3H:2V lur-ezponda +4,00 kotatik egun dagoen lursailaren kotara.
- Eskuinaldea:
 - o 0+490 KPtik 0+650 KPra:
 - Grabitate-horma, bistako ezponda-harriz apainduta (1H:10V maldakoa), +0,00 kotatik T500 urteko aldirako uholde-kotaraino ken 0,50 metro, 0,80 x 0,50 metroko petrila duela.
 - Horma amaieran, 3 metroko zabalerako pasealekua.
 - 2H:1V behearantzko maldako ezponda, orain dagoen urbanizazioaren kotara edo eraikiko den hormatxora.
 - Eremu horretan ekaitz-tanga jarriko da.
 - o 0+650 KPtik 0+790 KPra:
 - 1H:1V maldako harri-lubeta, +0,00 kotatik +4,00 kotara.
 - 2H:1V maldako lur-ezponda, +4,00 kotaren eta T500 urteko aldirako ur-laminaren kotaren artean.
 - 3 metroko zabalerako pasealekua, +4,72tik +7,87rako kotaldakorrean.
 - Grabitate-horma, bistako ezponda-harriz apainduta (1H:10Vmaldakoa), pasealekuaren kotatik egungo urbanizazioaren kotara.
 - Pasealekutik ibaira joan ahal izateko eskailerak eta harmailak jarriko dira.
 - Leku horretan eraikiko da Pilarreko pasabide berria.
 - o 0+790 KPtik 0+960 KPra:

- Grabitate-horma, bistako ezponda-harriz apainduta (1H:10V maldakoa), +0,00 kotatik T500 urteko aldirako uholde-kotaraino ken 0,50 metro, 1,00 x 0,50 metroko petrila duela.
- Horma amaieran, 3 metroko zabalerako pasealekua.
- 2H:1V beheranzko maldako ezponda, egungo urbanizazioaren kotara edo 1V:10H maldako grabitate-hormaren atzealdera.
- o 0+960 KPtik 1+0,50 KPra:
 - Grabitate-horma, bistako ezponda-harriz apainduta (1H:10V maldakoa), +0,00 kotatik T500 urteko aldirako uholde-kota ken 0,50 metroko kotaren eta +0,00 kotaren artean.
 - 2V:1H maldako lur-ezponda, horma amaieraren eta T500 urteko aldirako uholde-kotari 0,50 metro kenduta ematen duen kotaren artean, 1,00 x 0,50 metroko petrila duela.
 - Horma amaieran, 3 metroko zabalerako pasealekua.
 - Grabitate-horma, bistako ezponda-harriarekin (1H:10V maldakoa), pasealekuaren kotatik egungo urbanizazioaren kotara.
- o 1+050 KPtik 1+230 KPra:
 - Ibaiertzeko ezponda bere horretan utziko da, uneko egoeraren arabera.
 - Lur-betelana, egun dagoen 1H:10V maldako ezponda amaieratik T500 urteko aldirako uholde-kotari 0,50 metro kenduta ematen duen kotara, 1,00 x 0,50 metroko petrila duela.
 - 3 metroko zabalerako pasealekua.
 - Grabitate-horma, 1H:10V maldako bistako ezpondakoa, pasealekuaren kotatik egungo urbanizazioaren kotara.
- o 1+230 KPtik 1+370 KPra:
 - Ertza dagoen-dagoenean utziko da.

Proiektatutako biderapen jarduketa hauek ubidea zeharkatzen duten egungo egituretan, Martutene zubia (113,5 profila), gorotz-ponpaketa hodiaren gainean doan Pilar auzoko oinezkoentzako zubia (121,5 profila) eta Añarbeko Urak-en 1000mm diametroko uraren hornikuntza hoditeriaren igarotzea (131,5 profila), egingo diren aldaketekin bat doaz. Martuteneko 27 industrialdeko zubia (101,5 profila) ez da aldatu behar, bere momentuan 52 m zabalerako ubide batentzat diseinaturik izan baitzen, eta ondorioz, proiektu honetan proposatutako zabaleraren berriekin modu egokian lotzea ahalbidetzen du.

4.2. Martuteneko zubia

Martuteneko zubi berria 1. faseko lanetako bat da. Hona hemen deskripzioa: altuera aldakorreko 2 habe metaliko ditu, neurri ezberdineko 3 bao ditu, hain zuzen, 2,34 metro, 53,82 metro eta 2,34 metro argikoak. 2,34 metro argiko baoak horma-bularretan daude, eta txertatutako bi egitura elastikoz hornitzeko jarri ziren; hortaz, bi egitura elastikoki txertatuta dituen habe bat da. Horma-bularrari ainguratutako tirakai baten bidez txertatu dira, eta ertza bertikalki mugitzea eragozten du.

Zubiaren altxaerak 3 baoko habe jarraitu baten momentu-legearen bilkariari jarraitzen dio, beheko galibo hidraulikoak lekua behar duen eremuetan materiala gorago jarrita. Espaloien zoruaren kotatik, habeen gehieneko altuera 0,90 metrokoa da.

Ertzetan txertatutakoak nabarmentzeko, habearen momentu positiboek dagokien eremuan arima tolestu da. Horrela, plano kopatua sortu da, eta argi-kontrastea eragiten du kanpoaldean eta zubiaren barrualdea hartzen du; hau da, itsasoko eraikuntza baten itxura du.

2 habe nagusiak 17,3 metroko tartea dute arimaren goialdeko ertzen artean, eta 17,3 metrotik 15,3 metrora bitarteko tarte aldakorra arimaren behealdeko ertzen artean. Pasabidearen plataforma, beraz, aldakorra da; zatirik estuenean (baoaren erdia) 15,5 metroko zabalerara du.

Bertan, 3 metroko espaloia eta 2,5 metroko bidegorria daude ibaian beheara (5,5 metro); eta 3,5 metroko 2 erre (7 metro) eta 3 metroko espaloia, ibaian gora: $5,5 + 7 + 3 = 15,5$ m.

Zubiaren oholza 25 zentimetroko lodierako hormigoi armatuzko lauza bat da, 10 zentimetroko lodierako aurrelauzen gainean duela hormigoia. 2,34 metroko tartearekin dauden habexka metalikoen gainean daude aurrelauzak. Lauzaren eta zeharkako habexken arteko lotura Nelson motako konektoreen bitartez lortu da.

Eskuinaldeko horma-bularra diametro bateko 8 piloteen bidez zimendatu behar da, arroka sana 27 metro baino sakonera handiagoan baitago.

Ezkerraldeko horma-bularra eskuinaldekoa bezala zimendatu behar da; hau da, piloteen bidez. Ibaian gorako ertza harkaitz-substratuari lotuko zaio, baina ibaian beheako ertza 5-6 metroko sakonerari.

Espaloietak zolan 7 metroko lodierako hormigoizko zolarriak jarriko dira, okre kolorekoak. Kanpoaldeko ertzean Corten altzairuzko baranda jarriko da, eskudelduna, eta altzairu herdoilgaitzezko kable horizontalak. Bidearen eta espaloien artean, berriz, altzairu herdoilgaitzezko tutu metaliko bat.

Hona hemen zubia eraikitzekeko prozedura:

- ☐ Piloteak jarri
- ☐ Horma-bularrak jarri (piloteburuak / blokeak aurrealdeko euskarrietan)
- ☐ Egitura metalikoa tailerrean egin
- ☐ Egitura metalikoa muntatu
- ☐ Horma-bularrak jarri (blokeak atzealdeko oinarrietan / perimetro-paretak)
- ☐ Aurrelauzak eta ferralla jarri, eta oholza hormigonatu
- ☐ Baranda, zoladura eta azken lanak egin
- ☐ Karga-proba egin eta zirkulaziorako ireki

Hauek dira zubiaren ezaugarri nagusiak:

- ☐ Argiak: 2,34 / 53,82 / 2,34 m.
- ☐ Luzera, guztira: 60,84 m.
- ☐ Bi gatzariko zubi zuzena
- ☐ Altuera aldakorra: 2.300 / 1.200 / 2.100 mm.
- ☐ Luzetarako profila: $p = \%5$ / parabola / $p = \%5$
- ☐ Materiala: S355J2G2W altzairua (Corten altzairua)
- ☐ Lauza-oholtza
 - ☐ 10 zentimetroko aurrelauzak
 - ☐ HA-40/P/12/IIIc hormigoia
 - ☐ B-500S altzairua
- ☐ Horma-bularrak
 - ☐ HA-35/B/20/IIIc hormigoia
 - ☐ B-500S altzairua
 - ☐ MI: $\Phi = 1$ metroko 8 pilote (15 metro baino gutxiagoko sakoneran)
 - ☐ MD: $\Phi = 1$ metroko 8 pilote (27 metro baino gehiagoko sakoneran)

Egitura metalikoaren ezaugarri nagusiak laburbildu dira taula honetan:

4.3. Pilarreko pasabidea

Pilarreko auzoko pasabidea ere 1. faseko lanetako bat da. Altuera aldakorreko kaxa metaliko bat da, eta orekan jarrita ez dauden 3 bao ditu, hain zuzen, 2,728 metro, 62,744 metro eta 2,728 metro argikoak. 2,728 metro argiko baoak horma-bularretan daude, eta txertatutako bi egitura elastikoz hornitzeko jarri ziren; hortaz, bi egitura elastikoki txertatuta dituen habe bat

da. Horma-bularrari ainguratutako tirakai baten bidez txertatu dira, eta ertza bertikalki mugitzea eragozten du.

Zubiaren altxaerak 3 baoko habe jarraitu baten momentu-legearen bilkariari jarraitzen dio, beheko galibo hidraulikoak lekua behar duen eremuetan materiala gorago jarrita. Espalioen zoruaren kotatik, habeen gehieneko altuera 0,9 metrokoa da.

Ertzetan txertatutakoak nabarmentzeko, habearen momentu positiboei dagokien eremuan arima tolestu da. Horrela, plano kopatua sortu da, eta argi-kontrastea eragiten du kanpoaldean, eta zubiaren barrualdea hartzen du; hau da, itsasoko eraikuntza baten itxura du.

Zurrungarrien bidez eta 2,728 metroko tartearekin jarritako trenkaden bidez eman zaio zurruntasuna habeari. Izan ere, konpresio-ahaleginen (besteak beste, arima mailatu eta alboko gilbordura) ondorioz ezegonkortasunak eragozteko du xede.

0,65 metroko diametroko 4 piloteen bidez zimendatuko dira horma-bularrak. Horma-bularren atzealdean, barrura sartzeko kutxeta bat jarriko, trakzio-hortzetara iritsi ahal izateko.

Hona hemen pasabidea eraikitzeko prozedura:

- ☐ Piloteak jarri
- ☐ Horma-bularrak jarri
- ☐ Egitura metalikoa tailerrean egin
- ☐ Oholtza-zatiak horma-bularren gainean muntatu
- ☐ Oholtzaren erdiko zatia muntatu
- ☐ Zatiek arteko tartearak soldatu
- ☐ Baranda, zoladura eta azken lanak egin
- ☐ Karga-proba egin eta oinezkoentzako ireki

Hauek dira pasabidearen ezaugarri nagusiak:

- ☐ Argiak: 2,728 / 62,744 / 2,728 m.
- ☐ Luzera, guztira: 69,564 m.
- ☐ Zubi zuzena
- ☐ Sekzioa: kaxa
- ☐ Altuera aldakorra
- ☐ Luzetarako profila: $p = \%5$ / parabola / $p = \%5$
- ☐ Horma-bularrak
 - ☐ HA-35/B/20/IIIc hormigoia
 - ☐ B-500S altzairua
 - ☐ $\Phi = 0,65$ metroko 4 pilote

Materiala: S355J2G2W altzairua (Corten altzairua)

Egitura metalikoaren ezaugarri nagusiak laburbildu dira taula honetan:

Código • Kodea: **12544001.8**
 Promotor • Sustatzailea: **URA AGENTZIA**

R. Proyecto • P. Arduraduna: **EEM**
 Redactor • Idazlea: **EEM**



Elementua	Neurriak (mm)			Taula	Ertzak prestatzeko	Oharrak
	hasiera	fin	txb			
Goiko hegala	hasiera (x=0)	horma-atal 4.25 (x=8.775)	60x800	-	X loturetan. Lodiera-aldaketetan 1/5 trantsizioa	-
	horma-atal 4.25 (x=8.775)	horma-atal 7.75 (x=16.965)	40x800			
	horma-atal 7.75 (x=16.965)	horma-atal 19.25	80x800			
	horma-atal 19.25	horma-atal 22.75	40x800			
	horma-atal 22.75	amaiera (x=60.84)	60x800			
Beheko hegala	hasiera (x=0)	horma-atal 4.75 (x=9.945)	80x800	-	X loturetan. Lodiera-aldaketetan 1/5 trantsizioa. Habexken beheko hegalarekin 1/5 trantsizioa	300eko erradioa habexken beheko hegalarekin
	horma-atal 4.75 (x=9.945)	horma-atal 6.75 (x=14.625)	40x800			
	horma-atal 6.75 (x=14.625)	horma-atal 20.25	80x800			
	horma-atal 20.25	horma-atal 22.25	40x800			
	horma-atal 22.25	amaiera (x=60.84)	80x800			
Arima	hasiera (x=0)	horma-atal 2.25 (x=4.095)	80	Zuinketa orokorra	V loturetan. Lodiera-aldaketetan 1/5 trantsizioa	-
	horma-atal 2.25 (x=4.095)	horma-atal 8.25 (x=18.135)	25			
	horma-atal 8.25 (x=18.135)	horma-atal 18.75	20			
	horma-atal 18.75	horma-atal 24.75	25			
	horma-atal 24.75	amaiera (x=60.84)	80			
Arima-tolesduren sendogaria	horma-atal 4 (x=8.21)	horma-atal (x=15.19)	20x200	Zuinketa orokorra	V loturetan. Lodiera-aldaketetan 1/5 trantsizioa	
Kanpoko zurrungaria makurtuta	hasiera (x=0)	horma-atal 2.5 (x=4.095)	20x360	-	-	-
	horma-atal 24.5 (x=56.16)	amaiera (x=60.84)				
Zurrungarri bertikalak	40x400			-	Habexken arimarekin 1/5 trantsizioa	Zuloak hegalean eta habexken arimen loturan / Zuloak arima-tolesduren sendogarian / Zurrungariak bertikalean
Habexken goiko hegala	12x350			-	-	Zabaldu, zurrungariak jartzeko / Amaiera: elipse 1/2
Habexken beheko hegala	12 m. erdian	25x350		-	V loturetan / V habeen beheko hegalarekin	Habexken beheko hegalaik habe nagusien beheko hegalararen inklinazioari jarraituko dio
	ertzak	20x350				
Habexken arima	6 m. erdian	10		Zuinketa habexketan	-	Arima plano bertikalean egongo da / Zuloa zurrungariaren eta habearen hegalararen loturan / Zuloa zurrungariaren eta habexken hegalararen loturan / Zuloa habearen beheko beheko hegalararen eta habexkaren beheko hegalararen
	ertzak	12				
Habexken arima-tarteen sendogaria	12x200			-	-	-
Habexka-konektoreak	Nelson ϕ 22 / H175			Zuinketa konektoreetan	-	-
Atzealdeko ainguraketa-plaka	1. eta 26. habexkak		80 + 50eko sendogami-arandelak	-	X habeen arimarekiko loturan	-
Atzealdeko ainguraketa-plaken konektoreak	Nelson ϕ 22 / H175			-	-	-
Buloiak	1. eta 26. habexkak		ϕ 421	-	-	X2CrNiMoN2-5-3 altzairu herdoilgaitza / 1.4462 (Duplex 2205)
Euskarriak berdintzeko plakak	2. eta 25. habexkak		gutxieneko lodiera: 15	-	Habeen beheko hegalarari soldatuta	Malda: m= %5
POT motako euskarriak	2. habexka, ibaian gora		Gehieneko erreakzio bertikala, ezaugarria 1590 T	-	-	Zeharkako eta luzetarako higitzea eragotzita
	2. habexka, ibaian gora					Desplazamientos transversal y longitudinal libres
	25. habexka, ibaian behera					Zeharkako higitzea eragotzita / Luzetarako higitzea aske
	25. habexka, ibaian gora					Luzetarako higitzea eragotzita / Zeharkako higitzea aske

4.4. Añarbeko Urak edateko ura hornitzeko duen hoditeria (Ø1000 mm.) beste leku batean kokatu

1+235 KP parean, edateko ura hornitzeko hoditeriak (Ø1000 mm.) zeharkatzen du ibaia, ibaiaren uraren goitik; Añarbeko Urarena da hoditeria.

Hoditeria hori gaur egun daukan kokapena baino ibaian gorago jartzea proposatzen da, ibaiaren sakonetik. Hodi berria hormigoizko kaxoi baten barruan kokatuko da. Kaxoia egin aurreko exkabazioa eta kaxoia bera egiteko, ibaiaren sakonaldetik zanja bat egin behar da. Aldikako lan bat da ibaiaren sakonetik egin behar den hau.

4.5. Obregatik eragindako zerbitzuak

Obrak hartzen duen hiri-ingurunea oso populatua da. Hortaz, dauden hiriko zerbitzu-sare batzuei eragin egiten die obrak.

Hain zuzen, honako zerbitzu-sare hauei:

- Udalaren eta Añarbeko Urak enpresaren saneamenduari
- Udalaren eta Añarbeko Urak enpresaren hornidurari
- Iberdrola enpresaren behe-tentsioko sareei
- Telefonía-sare nagusiari
- Naturgas enpresaren banatze-sareari
- Argi publikoaren sareari.

Adierazi behar da, halaber, Donostia eta Astigarraga lotzen dituen errepide zaharrea dagoen Martuteneko zubian badiela zenbait zerbitzu zubiaren bidez, ibaia gurutzatzen dutenak. Zubia bota aurretik, zerbitzu horiek izaten jarraitzeko, ibaian gorago aldi baterako pasabide bat eraikitzea proiektatu da. Honako zerbitzu hauek igarotzen dira zubi horretatik barrena: Telefónica enpresaren sare nagusia, udal-hornidura, Añarbeko Urak enpresak ur beltzak bultzatzeko ponpa eta argiteri publikoa.

4.6. Aldameneko urbanizazioa

Lanen faseen arabera, aldameneko eremuetan honako urbanizazio-lan hauek egin behar dira:

1. FASEA (0+480 KPtik 1+370 KPra: 112.5-134 bitarteko profilak)

- Martuteneko zubi berriaren ezkeraldea:

Egungo kota baino kota altuagoan eraikiko denez zubi berria, eta espaloiak eta bidegorria oinplanoan eta sekzio orokortuan sartu behar direnez, ezinbestekoa da sarbidearen antolaketa berriro moldatzea, oinplanoan zein altxaeran.

Lurzoru mailan aldaketa, batik bat *Apostolado* kalearen elkargunetik sortzen da, aurreko bide zatia (38 bat m. luzekoa) beharrezkoa izanik ibilgailuetarako zatiaren (7 m-ko zabalerako bidea) trantsizioa bideratzeko.

Lurzoru-mailetan, L=35 metroko lotura konkaboa erabiliko da, hasieran egun dagoen eta zubirantz doan %0,54ko malda duela eta %6ko malda duela egitura berriarekin bat egiten duen tokian.

Sekzio orokortua ezkerretik eskuinerakoa da, eta zubi berrira gerturatzen garen neurrian:

- *Etxebizitzak dauden zonaldeko barruko urbanizazioa, +6,36/+6,16 inguruko kotan*
- *Urbanizazio barruko berdegunea, malda txiki batean, lurzatiaren itxitura berria kokatze aldera altuera handiagoa lortzeko*
- *Lurzatiaren itxitura, urbanizazio berriaren kotan (0,50 metroko zabalerakoa)*
- *3,5 metroko zabalerako espaloia eta 2,50 metroko zabalerako bidegorria*
- *7 metroko zabalerako bidea*
- *3 metroko zabalerako espaloia*
- *Zabalerak aldakorrek berma, lehengo espaloien eta berriaren (kota txikiagoan) arteko garaiera-aldeari konponbidea emateko*
- *2 metroko zabalerako espaloia, espalo berriaren kotan.*

Zubiarekin bat egiten duen eremuan, ibaian gorako ibaiertzeko bidearekin bat egingo du, 50 metro inguruko luzeran. Ibaian behera begiratuta, hau da eskema:

- *Dagoen eraikina*
- *Gutxienez 2 metroko zabalerako espaloia, oraingo bidearen kotan*
- *Altuera aldakorrek horma, lehengo espaloien garaieraren eta bide berriaren garaieraren arteko aldeari irtenbidea emateko (0, 30 metroko lodierakoa)*
- *4,75 metroko zabalerako bidea, kota aldakorrean.*
- *2H:1V maldako lur-ezponda, bidetik grabitate-hormara, zabalerak aldakorrek kanalizazioan (6 metro zubiaren ondoan eta 0 metro ibaian gorako bidearen amaieran).*

- Martuteneko zubi berriaren eskuinaldea:

Zubi berriaren euskarrian, lurzoru-mailak +8,41eko kota du, eta bideak %6ko malda du, beheantze, eskuinaldeko ertzerak. Udalak *Donostia Hiria Antolatze Plan Orokorren Behin Betiko Onarpena Urumea Ibarrean parte batean etenda izateari uzteko dokumentua*-n eremu horretako zirkulazioa aldatzea jasotzen du. Hau da, ez du nahi ibilgailuek Martuteneko pasabidea erabiltzea, eta Trantziaren bidera desbideratu nahi du zirkulazioa. Proiektu honetan, aurrea hartu zaio nolabait asmo horri, zirkulazioa pasabide horretara bideratzen baita.

Ibaiaren alde batera zein bestera dauden espaloien eta eraikuntzen kotak bere horretan utzi behar direnez, proposatutako sekzio orokortua honako honetan datza: ibaiaren bi ertzetan hormak eraikitzean, orain dagoen zintarriarekin lerrokatuta. Izan ere, ibilgailuentzako bide berriaren kotarekiko aldeari konponbidea eman nahi zaio.

Antzeko zerbait egin behar da Sarruetako bidearekin bat egiten duen eremuan. Lurzoru-mailak lotu ahal izateko, 60 metroko luzera hartu behar da. Bidearen kota igo egin da, eta horretarako, hego-ekialdeko aldean horma bat eraikiko da.

2. FASEA (0+000 KPtik 0+480 KPra; 102-112 bitarteko profilak)

- 0+050 KP eta 0+300 KP arteko eskuinaldea

Proiektatutako ibaiertzeko pasabidearen ondoren, 1V:2H maldako lur-ezponda bat ere gehitu da, gutxienez +7,50eko kota lortzeko aukera ematen duena. Kota horretan edo handiagoan jarriko da Sarruetako bidea, Donostiako Udalak aurreikusita duen urbanizazioaren trazadurari jarraituz.

Bide horren amaierako zatia noranzko bakarrekia izango da, 4 metroko zabalerakoa izango du eta 3 metroko zabalerako espaloia ibaiaren aldean. Proiektu honetan, 7 metroko zabalerako plataforma gauzatzea proposatzeaz gain, metro bateko zabalerako babesgune bat jartzea ere proposatzen da, lur-erazketaren tokian areka bat jartzeko. Zoladura zabalerakoa guztian egingo da, beroan egindako nahaste bituminosoa erabilita.

- 0+300 KPtik 0+400 KPra arteko eskuinaldea

Zati horretan, 0+400 KPan eta +4,50eko kota inguruan egun dagoen zatiaren eta lehen deskribatutako zatiaren artean dagoen tarteko zati batean berritu behar da Sarruetako bidea.

4.7. Lur-muinoa ibaian gora

Urak bideratzeko proiektatutako bidean, ibaian gorako azken zatian, eskuinaldean, lur-muino bat proiektatu dugu, uholdeak gertatuz gero ura ez sartzeko Martuteneko herrigunean. Hesi hidrauliko baten lana egiten du lur-muino horrek, eta bidegorriko 110 metro inguru aldatzea eragiten du. Lur-muinoa 335 metro inguruko luzerakoa da, eta sekzioa hau du: gailurrean metro bateko zabalerakoa +7,50eko kotan eta 2V:3H maldako lur-ezpondak.

4.8. Behin-behineko pasabidea

Obrak iraun bitartean eta Martuteneko zubi berria eraiki bitartean, oinezkoentzako behin-behineko pasabide bat jarriko da. Behin-behineko pasabide hori 0+600 KP altueran jarriko da, eta oinezkoentzako pasabidea izateaz gain, orain zubitik barrena igarotzen diren zerbitzuentzako ere behin behinean izango da.

4.9. Ekaitz-tanga

Proiektatutako bideratze-lanek hesi baten gisara funtzionatuko dute ibaiak aldameneko eremuak har ez ditzan. Hala ere, hesi horrek berak har ez ditzan. kontrako eragina izan dezake, Martuteneko kaleetara erortzen den euri-urak ibaira joan nahi duenetan.

Donostiako Udala arazo hori konpontzeko asmoz, Ikaur enpresari enkargatu dion Martutene uholdeetatik babesteko drainatze-sistema bat egiteko.

Martuteneko saneamendua bereizita dago. Hondakin-urak, batetik, hiru gunetan biltzen dira, gune horietatik Urumeako kolektorera ponpatzen dira, eta euri-ura zuzenean ibaira joaten da,

Martuteneko zubiaren eta Goizueta kalearen amaiera artean dauden 16 isurketa-gunetik bestetik.

Isurketa-gune horiek ibaiarekin lotuta daude zuzenean; beraz, ibaiak gora egiten badu eta proiektatutako bideratze-lana amaituta badago ere, ura 16 gune horietatik sartu eta hustulekueetatik aterako litzateke, eta horren ondorioz, Martutene urak gainezka egingo luke berriro. Horrenbestez, ezinbestekoa da 16 isurketa-gune horiek ixtea, uholdeetan ura gune horietatik barrena sar ez dadin. Klapetak jarrita lor daiteke hori, ura ibaitik kolektorera sar dadin eragotziko bailukete. Baina konponbide hori ez da nahikoa Urumearen kasuan. Izan ere, ibaiak gainezka egiten duenean, Martutene intentsitate handiz egiten du euria, eta hustulekuek hartu beharko luketen ura ez litzateke irtengo Urumearen maila ez gainditzeko, eta urak gainezka egingo luke berriro auzoan, nahiz eta euri-ura izan ur hori.

Horrenbestez, halakoak gertatzen direnerako, ezinbestekoa da auzoan erortzen den euri-ura ponpatze-estazio batean biltzea eta ibaiaren kota gainetik botatzea, Martutene auzoan pilatzen den ura hustu ahal izateko.

Lan hauek egin beharko lirateke:

- Batetik, euri-urak ponpatze-estazio batean biltzeko kolektoreak egin.
- Eta bestetik, uholderen bat gertatuz gero, ura gora jasotzeko eta ibaira isurtzeko ahalmena duen ponpatze-estazio bat eraiki. Ponpatze-estazioa Artolategi kalean kokatu da.

Proiektu honen xedea, hortaz, Martuteneko zubitik ibaian gora, Martutene auzoaren drainatze-sistemari konponbidea ematea da, Urumea ibaiak gainezka egiten duenerako, eta horrela, auzo barruan euri-ura irtengo dela ziurtatzea, edozein dela egoera.

Ikaur enpresak egindako proiektua dokumentu honetan jaso dugu. Proiektua osorik proiektu honen eranskin gisa, eta bana-banako neurriak eta prezioak aurrekontu orokorraren kapitulu solte gisa.

4.10. Ponpatzeko putzu berria

Aipatu berri den bezala, lan-eremuan hiru ponpaketa-estazio daude, eta lan-esparruko ia isurketa guztiak biltzen dituzte. Pilar, Ciudad Jardín eta Sarrietak hondakin-urak ponpatzeko estazioak dira. Ponpaketa-estazio horiek guztiak eskuineko ertzean daude, eta hori da populazio-dentsitate handiena duen eremua. Ezkerreko ertzean, Martuteneko pasealekuko zubiaren eta 27. poligonoko zubiaren artekoan, zuzenean ibaira egiten dira isurketak ibai ertzetik hurbilen dauden etxeetatik.

Añarbeko Urak mankomunitateak, ponpaketa-estazioen titular gisa, ubideratzeko obra lineala baliatuz, irtenbide orokorra eman nahi die Urumearen inguruko ur beltzen isurketei.

Ponpaketa-putzu bat sortu da, eta ur beltz guztiak bilduko ditu. Artolategi kalean dago. Esparruak 5,3 metroko zabalera, 11,3 metroko zabalera eta barruan 14 metroko garaiera ditu. Hormigoi armatuz eraiki da. Eraikitzeko, zutoin-oholezko itxitura handi bat egin da.

Ur beltzak puntu bakar batetik sartzen dira ganbera hezean. Ponpak ganbera lehorraren gunerik sakonenean daude. Hiru ponpa elektriko dira.

Ponpaketa-putzutik ganbera bietarako sarbidea Artolategi kalean dago, +4,72 kotan.

Ganbera lehorrean, kota horretan, eskailera-buru bat dago, eta han daude ponpak kontrolatzeko kaxa elektrikoak eta horri lotutako elektronikaren zentralizazio guztia. Behereneko kotara irteteko, hormigoizko eskailera bat diseinatu da.

Barrunbe horretan, 2 tonako zama mugitzeko gaitasuna duen zubi-garabia dago.

Ganbera hezeak solido-bereizgailu bat dauka. Ganberaren hondora jaisteko, metalezko eskailera bertikal bat dago, hormetako bati ainguratuta.

Ponpaketa-putzuak bi hustubide ditu:

- Bat +2,29 kotan dago, eta ura ibaira isurtzen du.
- Bestea +3,50 kotan dago, eta ura handik hurbil dagoen uharren tangara isurtzen du.

Bi hustubideetan, klapetak daude, aurkako norantzako uraren fluxua ekiditzeko.

Artolategiko ponpaketa-putzuan ur beltzen isurketak biltzeko, ibaiaren ertzetatik igaroko den kolektore-sare bat egin nahi da. Hiru kolektore dira:

1. kolektorea: horren burua Martuteneko 27. poligonora sartzeko zubiaren ondoan dago, ezkerreko ertzean. Kolektore hori Okondotegiko bidean ibaia gurutzatzen den tokiraino iristen da. Kolektoreak gurutzatu egiten du ibaiaren hondoa; beraz, kolektore hori sakonera handian dago. Ezkerreko ertzetik ibaira zuzenean doazen isurketak biltzen ditu kolektore horrek. Ereku horretan etorkizunean egingo diren eraikuntzetatik ere urak kolektore horretara isuri ahal izatea aurreikusten da.

2. kolektorea: horren burua Sarrieta-ko ponpaketa-putzura sartu aurreko kutxatilan dago. Kolektore hori jardunean jarrita, grabitate-indarrez joaten dira Artolategiko ponpaketa-estaziora gaur egun Sarrieta eta Ciudad Jardín-ko ponpaketa-putzuek bultzatzen dituzten urak. Beraz, desegin egin daitezke bi sare horiek. Kolektore horrekin, Sarrieta-ko etorkizuneko eraikuntzei ere zerbitzua eman nahi zaie.

3. kolektorea: kolektore hori Pilarreko ponpaketa-putzu garrantzitsuan hasten da, eta Martuteneko auzoaren zatirik handienari ematen dio zerbitzua. Horrela, grabitate-indarrez, urak Pilarreko HUPetik Artolategiko HUPe berrira joaten dira.

Kolektore horiek guztiak 500eko diametroko hormigoizko hodiekin egin nahi dira.

